

ta ikasi ez genduna; beste izkera guzien artean gure euskerak burua jasotzea nai ba-degu eta dagokion begiruna eta aintzara igoerazi, bide zuzenago eta egokiagorik eztaukagunere ustez. Jakitunak beren ezpañetatik bota zutelako, erri xea ere euskera baztertzen asi zitzaigun, eta orain guk aintzakotzat artzen degula ikusten ba-du, berak ere alaxe artuko du. Bigarren zenbaki ontako gaiak, aukeratuak, ugariak eta ederki borobilduak daude. Jarrai orlaxe, gazteak...! Jaungoikoaren eta gizartearen aurrean zuen alegin eta lanak txalogarri dira-ta.

... Nere iritziak ezer gitxi balio du gaur, noski, baña zenbait garaietan euskera-soroan nere goldearen zulo-arrastoak nabarmen ageri ziran. Orain nere atsegiñik eztiens gazte kementsu oien idazlanak artu eta patxaran irakurtzea det.

BELLOC-etik.

Arantzazu-ko txikiari

agur eta eskerrak.

YAKIN edertuz doa. Zer lana egiten dute zuen gaztek! ... Hartu ditugu zuen hogoi-ta bat eskutitzak. Baionan dire jadanik.

Ikusiko dute hola hemengo haurtxoek badi-rela, mendiz bertzalde hortan, eskual-ume egiazkoak.

Txikien bihotzetan da Eskual-Herriaren ge-roa; denak langile onak balin bazaizte eta denek bat egiten baduzue salbatua da Eskuara.

Agian sari asko irabaziko duzuela eta hemengo txikien partez, bihotzetik agur!